



## \*\*\*\*\* 04. SARIAK \*\*\*\*\*

Jaialdiko antolakuntzatik hurrengo sari hauek emango zaizkie irabazleei:

\* Hautatuko diren hamar pertsonak **300 euroko** laguntza ekonomikoa jasoko dute (zergak barne), **proiektuaren ekoizpen, garapen, exekuzio eta garraio gastuetarako ordainsari gisa**. Ordainketa jaialdia amaitzean burutuko da.

\* IN SITU ArtFestivalak **500€**ko sari ekonomikoa banatuko du (zergak barne).

\* **Erakusketa Gasteizko erdiguneko saltoki bateko erakusleihan**. Hautatutako bost pertsonen erakusketaren komisario-tza-lanak artearekin lotura estua duten gure hiriko aditu ezberdinek burutuko dituzte 2025eko ekainean zehar. Halaber, saltokien ibilbidea, artisten lana eta haien profila eta/edo ibilbidea jasoko dituen mapa bat argitaratuko da. Aipatutako informazioa webgunean egongo da ikusgai: [www.insituartfestival.com](http://www.insituartfestival.com).

## \*\*\* 05. SALTOKI PARTE-HARTZAILEAK \*\*\*

Hauk dira jaialdiaren laugarren edizioan parte hartuko duten saltokiak:

01. Cafés Eguia
02. Xtreme (arropa-denda)
03. Origen (janari-denda)
04. Mendia (optika)
05. Sistemas Arco

Web gunean erakusleihoei buruzko informazio gehiago aurki dezakezu.

## \*\*\*\*\* 06. EPAIMAHAI A \*\*\*\*\*

Arteari lotutako epaimahaia IN SITU ArtFestivaleko kudeaketa-taldeak izendatuko du. Jaialdian parte hartuko duten bost artisten hautaketa egingo du. Behin obrak dendetan jarrita daudenean, proiektu irabazlea hautatuko du.

Epaimahai taldeak aurkeztutako obrek proposatzen duten originaltasuna baloratuko du, aurrerago aipatzen diren balorazio-irizpideei jarraituz. IN SITU ArtFestivalen kudeaketa-taldea bileran egongo da, baina ez dute hautaketa horretan parte hartuko.

## \*\*\*\* 07. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA \*\*\*\*

IN SITU ArtFesivalean parte-hartzeko dokumentazioa webgunean "[Deialdia](#)" atalean eskuragarri dagoen formularioaren bidez bidali beharko da.

Hautatutako eta saritutako parte-hartzaileei Euskal Herriarekin duten lotura justifikatzeko eskatu ahal izango zaie.

- \* NANaren kopia.
- \* Aurkeztu beharreko proiektuari buruzko txostena (.pdf formatuan)
- \* Curriculuma + gehienez 2 orrialdeetako biografia laburra .pdf. formatuan. Estekak edo kanpo loturak sar daitezke nahi izanez gero.

Eskaera euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da. Gainera, parte-hartzaile bakoitzak bere lana erakutsi nahi duen saltokien lehentasunak zehaztu ahal izango ditu. **Dena den, behin betiko erabakia epaimahaikideen esku egongo da.**

Eskatutako dokumentazioa aurkezten edo betetzen ez duten proposamenak zein pertsonen, animalien eta espazioen integritatearen aurka jotzen duten proiektuak, deialditik kanpo geratuko dira.

## \*\*\*\*\* 08. AURKEZTEKO EPEA \*\*\*\*\*

2025eko **otsailaren 28tik martxoaren 31ra**, 23:59 arte.

## \*\*\*\*\* 09. EBAZPENA \*\*\*\*\*

Deialdiaren ebazpena apirilaren erdialdean argitaratuko da IN SITU Art Festivalen webgunean ([www.insituartfestival.com](http://www.insituartfestival.com)) zein jaialdiaren sare sozialetan.

## \*\*\*\*\* 10. BALORAZIO-IRIZPIDEAK \*\*\*\*\*

### \*\*\*\*\* ARTISTEN HAUTAKETA \*\*\*\*\*

Honako balorazio-irizpide hauen arabera, puntuazio handiena lortzen duten parte-hartzaileak izango dute jaialdiaren parte izateko aukeratuak:

- \* Sortzaile gazteen parte-hartzea, kontuan hartuta adin-tarte hori funtsezkoa dela kultura- eta gizarte-berrikuntzarako (% 40)
- \* Erakusleihu bati egokitutako proiektua edo esku-hartzea izatea (% 30)
- \* Proiektuaren izaera berritzailea eta parte-hartzailea (% 10)
- \* Material jasangarrien erabilera (% 10)
- \* Berdintasuna sustatzen duen proiektua izatea (% 5)
- \* Euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea (5%)

## \*\*\*\*\* 10. BALORAZIO-IRIZPIDEAK \*\*\*\*\*

### \*\*\*\*\* SARITUTAKO ARTISTAK \*\*\*\*\*

Artista saridunak aukeratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- \* Ekoizpenaren kalitate artistikoa (50%)
- \* Saltokiaren ezaugarrietara eta eskaintzen den produktu/zerbitzura egokitzea (30%)
- \* Lanaren kostuaren eta eraginkortasunaren arteko harremana (10%)
- \* Artelanaren ekoizpen prozesuan saltokiko elementuak txertatzea (10%)

\*\*\*\*\* 12. BESTE ALDERDI BATZUK \*\*\*\*\*

- \* Aipatutako laguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira.
- \* Epaimahaiaren ebazpena errekurritu ezina izango da.

\*\*\*\*\* 13. BETEBEHARRAK \*\*\*\*\*

- \* Onuradunek beren proiektua IN SITU ArtFestivalekin adostutako lan-egutegi eta epeetan garatzeko eta erakusketa-gune komertziala behar bezala erabiltzeko konpromisoa hartuko dute.
- \* Onuradunek IN SITU ArtFestivalek egindako edozein hedapen edo argitalpenetan beraien izena aipatzeko zein artelanaren erreproduktzio grafikoa egiteko baimena ematen dute.
- \* Onuradunak IN SITU ArtFestivalaren arauak beteko ditu, bere egitekoa saltokiaren ordutegietara egokituko du. Horrez gain, jabetza pribatukoak diren instalazioak eta espazioak errespetatu beharko ditu. Azkenik, jokabide zibikoa izan beharko du. Zentzuzkoak diren jokabideen alde.
- \* Ondoko esku-hartzeak debekatuta daude: Komunitatearen aurka doazenak edo lankideekin, bizilagunekin eta dendetako arduradunekin ohiko elkarbizitza eragozten dutenak.
- \* Onuradunak online & offline komunikazio-ildoak IN SITU ArtFestivalekin adostuko du. Egitasmoan zehar, artelanaren erakusketan eta hedapenean, IN SITU ArtFestival ekimenaren izena eta sare sozialetako dagozkion kontuak aipatu beharko dituzte.

\*\*\*\* 14. IN SITU ART FESTIVALAREN \*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\* KONPROMISOAK \*\*\*\*\*

- \* IN SITU ArtFestivalak oinarri hauetan jartzen dena betetzeko konpromisoa hartzen du.
- \* IN SITU ArtFestivalak behar den laguntza emango du proiektua prestatzerakoan sortzen diren eragozpenak konpontzeko eta proiektuak ahalik eta ondoen garatzen laguntzeko.

\*\* 15. ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA \*\*

Dirulaguntzen %100aren (zergen arabera) ordainketa jaialdia amaitu eta sari-banaketa egin ondoren burutuko da.

\*\*\*\*\* 16. ARAU HAUSTEAK \*\*\*\*\*

- \* Oinarri hauetan ezarritakoa ez betetzeak jaialdia etetea ekar dezake. Gainera, epaimahaiak hala erabakiz gero, diru-laguntza itzultzea derrigorrezkoa izango da.
- \* IN SITU ArtFestival jaialdiak oinarri hauetan arautu gabeko aldaketak egiteko edo ekimenak egiteko eskubidea izango du, betiere helburua programaren arrakasta izanik.

\*\*\*\*\*

Oinarri buruzko zalantzarik izanez gero, idatzi helbide honetara: infoinsituartfest@gmail.com.